

## MacArthur proiektua: tresna bat haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko

2007/06/10

MacArthur proiektua Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen, ingelesez, eta gaur egun **HUHEZI** ari da, han sortutako testa, **Communicative Development Inventories** (CDI) euskarara egokitzen. Test horrek neurtu nahi du, gurasoen informazioan oinarriturik, **hizkuntzaren garapen goiztiarra**, aurreikusteko umeek zer atzerapen izan dezaketen hizkuntza-garapenean eta neurri egokiak hartuta, ekiditeko atzerapenek ekar ditzaketen kalteak.

Proiektua HUHEZIn garatzen ari bada ere, beste unibertsitate batzuetako ikerlariekin batera ari gara lan horretan; hala nola, EHUko ikertzaileak, Salamancako Unibertsitatekoak eta Seaskakoak.

AEBetan orain hamabost bat urte sortu zen tresna hau, eta **bi galdetegik** osatzen dute: **Hitzak eta keinuak**, eta **Hitzak eta esaldiak**. Lehenengoak neurtzen du zortzi eta hamabost hilabete bitarteko haurren komunikazio-garapena eta bigarrenak hamasei eta hogeita hamar hilabete bitartekoena.

Galdetegiak jadanik sortuta daude eta momentu honetan argitaratzeko bidean. Beraz, datorren urtean erabiltzeko moduan egongo dira Euskal Herriko eskoletan. Tresna hau erabilita, neur daiteke haur jakin batek zer gaitasun duen hizkuntzarako, bai eta jakin ere zer adin ebolutibo dagokion hizkuntza garapenean.

Galdetegi hauek **luzeak** dira (ordubete inguru behar da berau betetzeko) eta horrek mugatzen du tresnaren erabilgarritasuna. Horregatik **bertsio laburrak** sortu dira eta horien fidagarritasuna eta baliagarritasuna frogatzeko, datu bilketa zabala egiten ari gara ikasturte honetan.

Proiektuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Espainiako Hezkuntza Ministerioaren diru laguntzak jaso ditu.

